



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

II. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2017ko maiatzaren 10, 11 eta 12
Iruñea, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Eraldaketarantz Hezkuntza
Emantzipatzailearen eta
Pedagogia Libertarioaren arteko
elkarlanean**

Markel Saenz de Ugarte Balza

77-84 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.ii.02.09>

ANTOLATZAILEA:



ELKARLANEAN:



LAGUNTZAILEAK:



Eraldaketarantz Hezkuntza Emantzipatzailearen eta Pedagogia Libertarioaren arteko elkarlanean

Saenz de Ugarte Balza, Markel
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
markel.saenz.de.ugarte@gmail.com

Laburpena

Hezkuntza Emantzipatzailea gizartearen eraldaketara bideratutako proposamena da; hezkuntza ekintza kritiko, erradikal eta hegemoniaren aurkakoa. Baina gaur egungo eskoletan aplikatzeko erak, klabe pedagogikoak, eraikitzeke daude. Ikerlan honetan eraikuntza prozesuan urrats bat eman da Pedagogia Libertarioak Hezkuntza Emantzipatzaileari egiten dion ekarpena aztertuz, hezkuntza formalean eta Euskal Herriaren hegoaldean kokatuta, maila teorikoan. Pedagogia Libertarioaren printzipioek Hezkuntza Emantzipatzailea nola elikatzen duten aztertu da, eta haietan oinarrituz printzipio gehigarri bat proposatu da, zapalkuntzei buelta emanez bestelako gizarte bat sortzeko gai izango diren subjektu politikoak garatzeko hezkuntza proposamen osoa lortzera bidean.

Hitz gakoak: Hezkuntza Emantzipatzailea · Pedagogia Libertarioa · Printzipioak · Eraldaketa

Abstract

Emancipatory Education is a proposal headed for getting a social change; a critical, radical and contra-hegemonic education action. But the implementation way on actual schools and the pedagogical keys are still under construction. In this research a step on the building process has been given, analysing the contribution that Libertarian Education makes in this regard, in formal education and in the South of Basque Country, on a theoretical level. It has been investigated how Libertarian Education principles feed Emancipatory Education and a new principle has been added, in order to get a complete educational proposal to grow political subjects who will be able to create another society by changing the oppressions up.

Keywords: Emancipatory Education · Libertarian Education · Principles · Transformation

1. Sarrera eta motibazioa

Globalizazio neoliberalaren paradigmaren pean dagoen gizartea da gaur egun indarrean dena. Gizarte hau, gainera, sistema kapitalista heteropatriarkarraren krisialdiak baldintzatzen du, aurpegi asko dituen krisialdiak, maila ekonomikoan bakarrik ez baizik eta maila sozial eta kulturean ere eragiten duenak. Koiuntura honetan, hezkuntza eredu ere eztabaidan dago.

Ondorioz, proposamen hegemonikoaz haratago doan, eta hainbeste zapalkuntza mantendu eta areagotzen dituen sistema neoliberalari eta kapitalismo heteropatriarkarrari buelta emango dion hezkuntza eredu bat planteatzea inoiz baino beharrezkoagoa da; eta are gehiago, inoiz baino posibleagoa.

Hezkuntza Emantzipatzailea (hemendik aurrera HE) hezkuntza ekintza kritiko, erradikal, hegemoniaren aurkako eta askatzaile bezala ulertuta, gaur egungo eskoletan aplikatzeko erak, klabe pedagogikoak, eraikitzeke daude. Badira, ordea, euren proposamen pedagogiko askatzailea praktikara eramanez eredu pedagogikoak. Horien artean aipagarria da zirkulu anarkistetatik sortutako Pedagogia Libertarioa (hemendik aurrera PL), gaur egun aplikatzen ari den eta sistemari aurre egingo dioten subjektuak eraikitzen bideratutako proposamena. PLk pertsonok botere hegemonikoei ongi datorkiena erreproduzitu ordez pertsona kritiko eta askeak sortzea du helburu, edota gizarte osoa askatzea¹.

¹ Pedagogia Libertarioa hautatu da aldaketa estruktural bat helburu duen proposamena delako, kapitalismoaren eta edozein dogmaren aurkakoa, eta urte askotan zehar praktikara eramana izan delako, eskola publikotik kanpo gehienetan. Egun HEren printzipioetatik at egon arren eraldaketarako ekarpen nabarmena izan daitekeen ideiarik atera daiteke PLren teoriatik.

Azken hau duela urteak eginiko proposamena izanik, bere ibilbide, korrante eta garapenarekin, beharrezkoa da Hezkuntza Emantzipatzailearen printzipioak Pedagogia Libertarioaren zein faktorek elikatzen dituen aztertzea, eta hori da lan honen helburua. Hezkuntza Emantzipatzailea Pedagogia Libertarioaren ideia eta praktika askatzaileekin elikatuz, posible izango da eskoletan zapalkuntzez kontziente izango diren, eta zapalkuntzei buelta emanez bestelako gizarte bat sortzeko gai izango diren subjektu politikoak garatzeko proposamen osoa aurkeztea.

2. Ikerketaren helburua eta arloko egoera

2.1 Ikerketaren helburua

Lan honen helburua, honenbestez, Pedagogia Libertarioak Hezkuntza Emantzipatzaileari egin diezaiokeen ekarpena aztertzea da, hezkuntza formalean eta Euskal Herriaren hegoaldean kokatuta, maila teorikoan².

Hori esanda, ikerketa-helburu zehatzak honakoak dira:

- 1) Pedagogia Libertarioaren proposamen desberdinek dituzten ahultasun eta indar-guneak topatzea Hezkuntza Emantzipatzailearen ikuspuntutik.
- 2) Hezkuntza Emantzipatzailearen printzipioak elikatzen dituzten Pedagogia Libertarioaren faktoreak identifikatzea maila teorikoan
- 3) Pedagogia Libertarioaren proposamenean oinarrituta, Hezkuntza Emantzipatzaileari gehi daskiokeen printzipioak ondorioztatzea.

2.2 Metodologia

Helburuak erdiesteko lehendabizi oinarri teorikoari erreparatu zaio, eta beraz HEren aurrekariak eta sorrera eta iturri pedagogikoak aztertu dira. Ondoren, analisi teorikoa burutu da, non HEri dagokionez subjektu politikoak eraikitzeke printzipioak eta ezaugarriak bilatu diren, eta PLri dagokionez bere ibilbide historiko, teoria eta esperientzia ezberdinen ondorio diren printzipio komunak.

Eta azkenik, lau urrats burutu dira.

- 1) Behin HEren printzipioak sailkatuta, PLren printzipio bakoitzak HEren printzipioei egiten dien ekarpena aztertu da, banan-banan³.
- 2) PLren printzipioek HEren printzipioekiko aurkezten dituzten indar-gune eta ahulguneei egin zaie so, printzipioak taula batean gurutzatuz, elkarrekiko lotuta baitaude.
- 3) HEren printzipioen baitan PLk egiteko dituen ekarpen nagusiak ikertu dira.
- 4) PLn oinarrituta HEk izan ditzakeen printzipio gehigarriak aurkeztu eta arrazoitu dira.

2.3 Hezkuntza Emantzipatzailearen aurrekariak

Hezkuntza Emantzipatzailearen aurrekaritzat Garapenerako Hezkuntza har daiteke. Hasiera puntu duen 1950. urtetik bilakaera handia izan duen arren, ez du garapenaren ideia alboratu, eta ondorioz, Postgarapenerako Hezkuntza⁴ sortzean, Garapenerako Hezkuntzan zeuden belaunaldi

² Ikergaia hezkuntza formalean kokatzen da, nahiz eta batzuetan hezkuntza formalaren, informalaren eta ez-formalaren arteko mugak oso argiak ez izan. Pertsona gehienek eskolara joateko beharrezkotasuna duten heinean, parte-hartzaile guztiengan kontzientizazio prozesu batek subjektu politikoaren eraikuntza ugariagoa ekarriko luke. Bestalde, ikergaia Euskal Herriaren hegoaldean kokatzen da berau baita lanaren eragin esparrua eta ondorioen lehen aplikagunea, autorearen kokapenagatik eta hezkuntza sistemen antzekotasunagatik.

³ Artikulu honetan ez da urrats hau plazaratu, gainontzeko urratsak honen ondorio dira eta.

⁴ Honela definitzen du Postgarapenerako Hezkuntza Lozano Rayak (2009:75): “Prozesu politiko-pedagogikoa da, iruditeriaren deskolonizazioan oinarrituz, bizi garen paradigma ekonomizistatik atera eta gure

guztiekin⁵ apurketa bat eman zen. Izan ere, garapenak gizarte guztien “uniformizazio soziokulturala” dakar bizitza estilo eta arau sozial mendealdarretara; eta modernitate mendealdarra, zapalkuntza eta errepresio instituzio batzuetan oinarritzen da (Lozano Raya, 2009:59).

Hezkuntza Emantzipatzailea oraindik haratago doa, garapenaren ideari muzin egiten baitio Postgarapenerako Hezkuntzak bezala, baina bere helburua gizartean aldaketa estrukturala ematea da, ikuspegi politikoago batekin. Eta helburu hori betetzeko, denon artean eraldaketarako eta ekintzarako borondatea eta izaera errebeldea duten subjektu politikoak eraikitzea beharrezkoa da, hezkuntzaren esparru guztietan. Lan hau, esan bezala, HEren ideien baitan kokatzen da.

2.4 Iturri pedagogikoak

Hezkuntza formalean, pedagogia kritikoko korronteen barnean erreprodukzioaren eta erresistentziaren teorien artean dago eztabaida. Lehenengoek eskoletan ematen den zapalkuntzen erreprodukzioaren analisi teoriko osoa burutu dute, eta erreprodukzioaren teorikoek bide desberdinak irudikatzen badituzte ere, honako ideia dute komunean: aldaketa sozialak emango badira, “eskola den instituziotik kanpo” ematen den klase borrokaz emango direla (Hirsch eta Rio, 2015:76). Erresistentziaren teorien arabera, ordea, erreprodukzio sozial eta kulturalaren mekanismoak inoiz ez dira osoak, ia beti partzialki betetako oposizio elementuekin topatzen baitira (Giroux, [1983]1985:3).

Hala ere, nahiz eta bi korronteen planteamendu dialektikoa aurkeztea proposatzen duten, analisisian “alde batez” eta “beste aldeaz” hitz egiten dute, eta honek ez du eraldaketaren fenomeno konplexutasun osoaz hartzen uzten (Hirsch eta Rio, 2015:83-39). Ikerlan hau eskoletan erresistentzia burutzea posible delako ideiarekin pean burutu da, baina kontuan hartuz justizia soziala lortzera bidean behar den hezkuntza bi korronteen arteko dialektikaren ondorio izango dela; erreprodukzioaren teorien analisirako gaitasuna eta kritika, eta erresistentziaren teorien aldaketarako esperantzaren arteko dialektikaren eta ez dikotomizazioaren ondorioa, hain zuzen ere.

3. Ikerketaren muina

Aurrekariak eta lanaren helburu nagusiak aurkeztuta, ikerketaren funtsari helduko zaio jarraian. Horretarako HE eta PLren printzipio nagusien berri emango da lehenbizi (3.1 eta 3.2 atalak hurrenez hurren), eta printzipioen arteko uztarketa agertuko da gero (3.3, 3.4 eta 3.5 atalak).

3.1 Hezkuntza Emantzipatzailea

Hezkuntza Emantzipatzailea Freireren zapalkuntzen teoretatik dator, baina zapaltzaile-zapaldu dikotomiatik irtenda ikuspegi interseksionala⁶ behar denez egoeraren konplexutasuna ondo ulertzeko, HEn subjektu politikoak hartzen dira erroko aldaketarako motoretzat.

Hezkuntza prozesuan subjektu politikoak eraikitzeko, hezkuntza ekintza emantzipatzailea artikulatzeko printzipio batzuk finkatzea garrantzitsua da (Celorio, 2015). Gaur egun arte zirriboratu diren printzipio politiko-pedagogikoak bost dira, betiere dimentsio politiko, etiko, pedagogiko zein kulturartekoan eragiteko ideiarekin (Celorio, 2014):

gizarteetako zapalkuntza-menderatze erlazioak zalantzan jarri nahi dituen aldaketa sozialerako bidea hasteko gizarte-egitura berriak eta pertsonen arteko erlazio berriak eraikitzearen bidez”.

⁵ 5 belaunaldi desberdintzen dira, haien arteko mugak argiak ez izan arren: Karitatearen-Asistentziaren ikuspegia; Ikuspegi desarrollista eta GHren agerpena; Kritikaren-Elkartasunaren ikuspegia; Giza garapen jasangarriko ikuspegia; eta Mundu osoko Hiritarrentzako Hezkuntzaren ikuspegia (Mesa, 2014).

⁶ Interseksionalitatearen kontzeptuak “aldi berekoak eta anitzak diren zapalkuntza egituren sistema konplexuari” egiten dio erreferentzia (Williams Crenshaw, 1991).

- Paradigma ekonomizistatik ateratzea ala kapitalismoaren desnaturalizatzea (Lozano Raya, 2009:65-67). Beste gizarte eredu batzuk bideragarriak direla gizarteratu behar da hezkuntzaren bitartez.
- Iruditeri kolektiboaren deskolonizazioa (Lozano Raya, 2009:61-64). Pentsaera menderatzailea eskola, komunikabide eta kontsumo ereduaren erreproduzitzen da, eta beragandik askatzea beharrezkoa da, gatazka kognitiboak sortuz.
- Feminismoak proiektu politiko bezala integratzea. Biolentzia era desberdinei aurre egiteak patriarkatuari aurre egitea dakar, eta feminismoekin botereen inguruko hausnarketa ere planteatzen da, boterea kontzeptu multidimentsionala baita. Bizitzaren jasangarritasuna eta zaintzaren etika estrategia zentralizat hartu behar da hezkuntzan, eta ekofeminismoak bezalako ereduak kontuan izan
- Inklusioaren alde lan egitea (Da Sousa Santos, 2006:46-47). HEren filosofia eta praktikak gizarte inklusiboak sortzea bilatzen dute, zeintzuetan ahalduntze kolektiboa ematen den.
- Ezagutza ez androzentrikoa, ez etnozentrikoa, eta sozialki adierazgarria.

Printzipio politiko-pedagogiko hauen pean subjektu politikoak eraikitzeke, bestalde, oso garrantzitsua da hezkuntza-prozesua erdigunean jartzea. Ekintza printzipio batzuk ere egongo dira, beraz, subjektu politikoaren eraikuntza prozesurako (Celorio, 2015):

- Espazio eta erlazio eraldatzaileen eraikitzea. Demokrazia erradikala, parte-hartzea, negoziazioa, erabaki hartze kolektiboa, lankidetzeta, gatazken transformazioa, erlazio horizontalak, gaitasun guztien errekonozimendua, lengoaien eta ezagutza sistemen dibertsitatea, etab.
- Metodologia aktibo, parte-hartzaile eta komunitarioen erabilera.
- Sare eta aliantzen sorkuntza eta finkatzea.

Azkenik, printzipioei dagokienez, nabarmentzekoa da beharrezkoa dela prozesuaren eta helburuen arteko oreka, egungo helburuen arabera sortutako kurrikulo eta hezkuntza praktiketatik haratago, baina aldi berean printzipio politiko-pedagogikoak ahaztu gabe.

3.2 Pedagogia Libertarioa

Hezkuntza libertarioarekin lotutako esperientzia eta autore desberdinak egon dira historian zehar, oinarri desberdinetatik teoria eta praktikak garatu dituztenak. Ezin da beraz anarkismoaren hezkuntza-teoria bakarraz hitz egin, anarkismoez eta anarkismoen hezkuntza teoriez baizik. Halaber, gaur egungo hezkuntza pentsatzeko anarkismoen printzipio filosofiko-politikoak erreferentzetat hartu nahi badira, “mugimenduan” egin behar da, beti eraikuntzan dagoen errealitate bati egiten baitiote so, gure egunerokotasunaren deseraikuntza prozesatzen duena (Gallo, 1997:9). Hezkuntza libertarioan lau printzipio orokor eta komun daudela esan daiteke⁷:

- Autoritarismoaren kontrako jarrera. Autoritateei eta menpekotasunei uko egiten zaie, autonomia eta askatasun (indibidual zein kolektiboko) ikaskuntza proposatuz. Era negatiboko autoritateei egiten zaie muzin, botere harremanei loturikoei. Bestalde, autoritarismoaren aurkako hezkuntza batek umea ala gaztea hezkuntza-erlazioaren zentroan jartzen du, eta Guillaumek ([1876]1978:324-325) zion moduan umeak subjektutzat hartzen ditu, hezkuntza ume ala gazteen nahi eta askatasunetik pentsatuz.
- Hezkuntza integrala. Lan intelektualaren eta manualaren arteko mugak apurtzean datza. Estatuak askatasunari eragiten dionez, Elizak espirituari eta kapitalak lanari (Proudhon, [1865]1977:335-344), ekintzek, esperientziak eta arrazonamenduek sustengatzen duten hezkuntza integrala beharrezkoa da zapalkuntzei aurre egin ahal izateko. Honek heldu

⁷ Cuevas Noa (2003) eta Tina Tomassi ([1978]1988) hartu dira erreferentzia nagusitzat.

askeak formatzea ahalbidetu beharko luke, mundua aldatzeko sentikorrek (Castellanos, 2001:1-3). Batzuk, gainera, hezkuntza integrala lan manuala eskolaren zaintza lanak guztion artean egitearekin lotzen dute, eta azken hau puntu garrantzitsua da, gaztetatik neska eta mutilek berdintasunean edozein lan egitean, “genero rolekiko obsesioa jaisten baita” (Martín Luengo, 2013).

- Autogestio pedagogikoa. Hezkuntza-esparruak sortzeko gaitasuna (eskolak, ateneoak etab.) zentro anarkistengandik eta beraien medioekin; taldearen ikasketen auto-antolakuntza, ikasle eta irakasleak barne; eta ikasketen auto-kudeaketa hezigaien esfortzuaren bidez, autodidaktismo, ikerkuntza teknika eta talde-lanen bidez. (Cuevas Noa, 2003:86).
- Elkarren sostengua eta elkartasuna. Elkartasuna, elkarlana eta errespetua bezalako baloreak sustatzea, lehiakortasun oro ezabatuz. Norbanakoek taldearekiko konpromisoak hartzen dituzte, aske izateko ardurak hartu behar direnaren ideien pean, “askatasun kolektiboa” eraikiz.

3.3 Indar-gune eta ahulguneak

HEren printzipioen eta PLren printzipioen arteko gurutzaketa burutuz gero, PLk klabe batzuk ematen ditu, HEren printzipioak elikatzen dituztenak. Bi korronteen arteko loturak zein printzipioen artean ematen diren 1. taulan plazaratu da, PLren indar-gune eta ahulguneak ikusgarri direlarik.

1. taula. PLren printzipioen sinergiak HEren printzipioekin.

PEDAGOGIA LIBERTARIOA		PRINTZPIO POLITIKO-PEDAGOGIKOAK				
		Kapitalismoaren desnaturalizatzea	Iruditeri kolektiboaren deskolonizazioa	Feminismoa	Inklusioa	Ezagutza eraldatzailea
EKINTZA PRINTZPIOAK	Espazio eta erlazio eraldatzaile	1, 2, 3, 4	1, 2	1, 2, 3, 4	1, 2, 3, 4	
	Metodologia aktibo, parte- hartzaile eta komunitario				4	1, 3
	Sare eta aliantzak					
1. Autoritarismoaren aurkako jarrera, 2. Hezkuntza Integrala, 3. Autogestio pedagogikoa, 4. Elkarrekiko sostengua eta elkartasuna						

3.4 HEren printzipioak elikatzen dituzten PLren faktoreak

PLk HEren printzipio politiko-pedagogikoei ekarpenak egiten badizkie, espazio eta erlazio eraldatzaileak eraikitzean printzipio horiengan duen eraginarengatik da gehienbat, analisisan ikusi ahal izan denez:

- Lehenengo ekarpena PLren autoritatearen inguruko hausnarketa da. Horizontaltasunean ere, PLren arabera ona da autoritate negatiboa ukatu bai baina autoritate positiboa onartzea asanbladetan, beti ematen baita pertsona jakin batzuk mirespena eragitea. Honenbestez, ez da ukatzen batzuen hitzek pisu gehiago izan dezaketela, betiere menderatze erlaziorik ez dagoen heinean positibotzat ere hartzen delarik. Hau lotuta dago, feminismoak proiektu politiko bezala integratzeko egiten den boterearen inguruko hausnarketarekin. Era honetan ulertuta, boterea agerikoa izateak berau ikusgarri egitea suposatzen du, horrek loturik ekar ditzakeen gatazkekin batera, horizontaltasuna landuz.
- Ekarpen nabarmena da “askatasun arduratsuen” ideia ere. Hau da, asanbladan konpromisoak hartu behar direlako ideia sustatzen da “berdintasunean, askatasunean eta

elkartasunean” urratsak emateko (Paideia, 1999:31). Honenbestez, horizontaltasunak eta erabaki hartze kolektiboak, ardurak eta konpromisoak ere badakartzate beraiekin.

- Autogestio pedagogikoa ere garrantzitsua da espazio eta erlazio eraldatzaileak eraikitzeko. Ahal den heinean autogestioa lortzea, kanpo eragileekiko dependentziak autogestioa lausotzen du eta. Gaur egun ikerlana kokatzen den Euskal Herriaren hegoaldeko hezkuntza formalean printzipio hau aurrera eramatea zaila den arren, interesgarria da buruan ahalik den maila gorenean autogestioa lortzea maila guztietan.
- Hezkuntza integralaren printzipiotik eratorrita, ekarpena da PLn bezala azpimarratzea gorputza, emozioak, eta zainketak, arrazoa bezainbeste lantzea prozesuan. Subjektu politikoa eraikitzeko prozesuan PLtik hezkuntza integralaren kontzeptua berritzea beharrezkoa da plano guztietan izaera zapaltzaileaz jabetu eta berau deseraikitzeko prozesua abiatzeko, edota pairatzen diren zapalkuntzez kontziente egin eta hauei aurre egiteko mekanismoak martxan jartzeko. Honetarako lan manualak eta intelektualak eskolan integratuta egoteaz gain, hezkuntza emozionala ere beharrezkoa da, “behar afektiboetan” azentua jartzea, eta balioak lantzea denek berauekiko “konpromisoak” ala “ardurak” hartzearekin batera (Paideia, 2013:7-9).

Feminismoa proiektu politiko bezala integratzeari erreparatuz, PLk HEn egindako ekarpen handienetarikoa bat Paideia eskolan hezkuntza integrala berrinterpretatuz aurrera eramaten dena da: eskolan beharrezkoak diren zaintza eta mantentze lanak denen artean burutzen dituzte, asanbladetan erabakitzen den eran gainera. Ekonomia feministatik zaintza lanak ekonomian ezkututzen direla kritikatzeko da, eta ehuneko handiengan emakumeen gain daudela, gainera. Honenbestez, Paideia eskolan bezala denek zentroaren lan guztiak planeatu eta egiten badituzte (garbiketa, sukaldatzea...) era parekidean, aurrerapauso bat emango da hezigaiek lan hauek beraien bizitzan normaltasunez eta era kolektiboan hartzeko (Martín Luengo, 2013:7).

Ezagutza ez androzentriko, ez etnozentriko eta sozialki adierazgarria sortzen den printzipioarekiko, PLren ekarpena ezagutza oinarritik sortzeaz gain oinarriak nahi duenean barneratzen dela da. Autogestio pedagogikoaren printzipioaren pean erabakigunea asanbladan sortzen denez, ez dago ezagutza bat arrotza balitz bezala eraikitzeko aukerarik.

3.5 PLn oinarrituta HEn printzipio gehigarriak

Aurreko guztiaz aparte, ideia bat dago PLn funtsezkoa dena baina HEn printzipioen baitan ez dagoena, gizartearen emantzipazioarako beharrezkoa den arren: **Gazteon eskubideak errespetatu eta berauek zentroan jartzea.**

PLren autoritarismoaren aurkako jarreraz aritzean bere izaera paidozentrikoa azpimarratu da, eta honek helduen botereari aurre egitean aurrerapausoa suposatzen du. Klase, genero eta zapalkuntza kolonialaz aritzeko ohitura dago, baina ez helduen botereaz eta honek dakarren zapalkuntzaz. Hau itxuraz ez da existitzen, pertsonak zapalkuntza jasatean ez baitute autokontzientzia eta gaitasun kritikorik, edota gutxi garatua daukate (Gil de San Vicente, 2010).

Helduen botereak familia eta hezkuntza-instituzioak barnebiltzen ditu, “gizarte kontrol” instituzioak bezalaxe. Paideia kolektiboan haxe azpimarratzen da (2013:8), hezkuntza ez-sexistak duen oztoporik handiena “familian” dela, umeek “berdintasunean hezkuntza” ulertzen baitute, baina gurasoak zalantzan jartzea ez dute gustuko; gatazka sortzen die.

Gainera, ez da erraza aukera libertario batetik hezten duen pertsona eredu bat aurkeztea (García Moriyón, 1999:1). Gainontzeko zapalkuntzekin gertatzen den bezala, deseraikuntza prozesu bat suposatzen du helduentzat, eta hau zaila da botere jakin bat duen pertsona orok hau kontserbatu eta bere onuran erabiltzeko joera baitu.

4. Ondorioak

Pedagogia Libertarioa eta Hezkuntza Emantzipatzailea osagarriak dira, tradizio desberdinetatik datozen arren.

Hala ere, desberdintasunak nabarmenak dira, prozesu pedagogikoa nola garatu behar den ezaugarritzeko analisi desberdinak baitituzte. Batetik, HEk azentua hezkuntzaren izaera politikoan jartzen du, eta honen arabera definitzen du kurrikulua, eraldaketa sustatuko duen subjektu politikoa helburu. Bestetik, PLk analisi politikoa egin bai baina norbanakoaren askatasunean konfiantza osoa dauka, bere erabakiak hartzeko gaitasunean, nahiz eta erabakiak kolektiboan hartu. Hori dela eta, PLn indibiduala da gehienbat azpimarratzen dena, HEn kolektiboari garrantzia gehiago ematen zaion bitartean. Beraz, PLn kurrikulua norbanakoarena eta norbanako desberdinek osatutako taldearena den bitartean, HErentzako kurrikulua ere politikoa da, eta beraz komunitateak eztabaidagai daukan zeregina da.

Funtsezko desberdintasun honek eraldaketa emateko burutu beharreko prozesu pedagogikoan bi korronteen arteko aldeak dakartzan arren, bien helburua eraldaketa da, eta hortik dator bien osagarritasuna. Honenbestez, PLren printzipioen bidez HEk jada zituen printzipioak osatu dira bien arteko gurutzaketa emanez, eta printzipio berri bat ere gehitu zaio, gazteon eskubideak errespetatu eta berauen eskubideak zentroan jartzeari dagokiona.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hau lehen urratsa da, baina beste asko geratzen dira emateke. PLren inguruko eskola desberdinen analisi dokumentala eta landa lana egitea beharrezkoa da maila teorikoan egindako analisia osatu eta ideia berriak hartzeko. Halaber, gizarte eraldaketa bat helburu duten hezkuntza eredu gehiagorekin prozesu berdina burutzea funtsezko urratsa da etorkizunerako Hezkuntza Emantzipatzailea elikatzeke, Hezkuntza Herritarra ala ikas komunitateak, kasu.

Ikerlan hau hezkuntza formalean kokatu da eta Euskal Herriko hegoaldeko markoan, eta ondorioak teorikoak izan dira. Etorkizunerako, ostera, ondorio hauek praktikara nola eraman aztertzea beharrezkoa da, eta honetarako hezigai eta hezitzaileek eskola publikoan Hezkuntza Emantzipatzailearen printzipioak aplikatzeko bidea zirriborratzea da idealena, Ikerketa-Ekintza-Partehartzailearen bidez, denak prozesuaren parte izanik. Eta ez hori bakarrik, zabaldu daitezkeen Unitate Didaktiko eta bestelakoak sortzen joan sareak sortzearekin batera, Hezkuntza Emantzipatzailea hedatu eta gizarte eraldatzeko hezkuntzan ekarpena egin ahal izateko. Paperak dena eusten du, eta eraldaketa sustatzea helburu duten lanak paperetik mundura hurbiltzea beharrezkoa da. Honenbestez, espero dut egungo hezkuntza-eredua kolokan jartzen duten lanek hausnarketa kritikorako eta praxirako pizgarri bezala balio izatea.

Eta amaitzeko, Paulo Freirek (2012[1970]:226) Zapalduaren Pedagogiaren amaieran dion moduan:

“...asebetetzat joko dugu gure burua gure irakurle posibleek akatsak eta nahasteak zuzentzeko kritikak sortzen badituzte, baieztapenak sakontzekoak eta ortzi-muga berrietara jotzekoak”.

6. Erreferentziak

- Castellanos, H. (2001): *L'education intégrale*, Revue Réfractons, 7. [http://refractions.plusloin.org/IMG/pdf/La_Educacion_Integral.pdf]
- Celorio, G. (2015): “La educación emancipadora como proyecto de cambio social”, in *Hezkuntza Astindu: Gizarte Eraldaketarako Gakoa*, Calcuta Ondoan, Leioa, 10-19.
- Celorio, G. (2014): “Laburpen gisa. Eztabaidako ekarpenak hezkuntza emantzipatzaile bati buruz”, *Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde! Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak.*, Hegoa, 219-230, Bilbo. [<http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2015/04/aktak.pdf>]
- Cuevas Noa, F. (2003): “Anarquismo y educación. La propuesta sociopolítica de la pedagogía libertaria”, *Cuadernos Libertarios*, 11, Fundación de Estudios Libertarios Anselmo Lorenzo, Madrid. [granada.cnt.es/file/96/download?token=4cy6Fir1]

- Da Sousa Santos, B. (2006): “Conocer desde el Sur. Para una cultura política emancipatoria”, Fondo Editorial de la Facultad de las Ciencias Sociales, UNMSM, Lima, Perú. [http://www.boaventuradesousasantos.pt/media/Conocer%20desde%20el%20Sur_Lima_2006.pdf]
- Freire, P. (2012 [1970]): *Pedagogía del Oprimido*, Siglo XXI de España Editores, Madrid, 2. argitalpena.
- Gallo, S. (1997): “El paradigma anarquista de educación”, *Semillas de Libertad*, Plataforma ácrata [<http://tal.bolo-bolo.co/es/s/sg/silvio-gallo-el-paradigma-anarquista-de-la-educacion.pdf>]
- Gil de San Vicente, I. (2010): “Poder adulto y emancipación juvenil. Debate con jóvenes independentistas catalanes”, *Matxingunea*. [<http://matxingunea.org/dokumentua/poder-adulto-y-emancipacion-juvenil/>]
- Giroux, H. (1985 [1983]): “Teorías de la reproducción y la resistencia en la nueva sociología de la educación: un análisis crítico”, *Cuadernos Políticos*, Era, 44, Mexiko D.F. [http://www.pedagogica.edu.co/storage/rce/articulos/17_07pole.pdf]
- Guillaume, J. (1978 [1876]): “Idées sur l’organisation sociale”, in Besnard, Pierre (1978) *Les Syndicats ouvriers et la Révolution sociale*. Éditions le Monde nouveau Besancon, 324-325.
- Hirsch, D.; Rio, V. (2015): “Teorías de la reproducción y teorías de la resistencia: una revisión del debate pedagógico desde la perspectiva materialista”, *Foro de Educación*, 13, 69-91. [<http://forodeeducacion.com/ojs/index.php/fde/article/viewFile/320/286>]
- Lozano Raya, J. (2009): “¿Qué educación para qué desarrollo? Pistas de reflexión para la sexta generación de Educación para el Desarrollo”, Pablo de Olavide Unibertsitateko Hezkuntza Masterreko titulua lortzeko aurkeztutako memoria, 59-75. [http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/1126/Memoria_Julian_Lozano.pdf]
- Martín Luengo, J. (2013): “Educación para la igualdad”, Escuela libre Paideia, Mérida. [<http://www.paideiaescuelalibre.org/search/49-educacion-para-la-igualdad.html>]
- Mesa, M. (2014): “Precedentes y evolución de la educación para el desarrollo: un modelo de cinco generaciones”, *Sinergias, Diálogos educativos para a transformação social*, 1, 24-56. [<http://www.ceipaz.org/images/contenido/Revista%20sinergia.pdf>]
- Paideia (2013): “Proyecto Educativo de una Escuela Libre”, Escuela libre Paideia, Mérida.
- Paideia (1999): “Paideia, escuela libre. Enseñanza autogestionaria”, Escuela libre Paideia, Mérida.
- Proudhon, P. (1977 [1865]): *De la capacité politique des classes ouvrières*, Les Editions du Monde libertaire, Paris, 335-344, 2. argitalpena.
- Tomassi, T. (1988 [1978]): *Breviario del pensamiento educativo libertario*, Otra Vuelta de Tuerca, Cali, Colombia, 2. argitalpena.
- Williams Crenshaw, K. (1991): “Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics, and Violence Against Women of Color”, University of California, Los Angeles, US.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman dizkiet Zesar Martinezi eta Gema Celoriori, lehenengoak hezkuntza eraldatzailearen esparruan eta bigarrenak Hezkuntza Emantzipatzaileari dagokionean egindako ekarpenengatik. Mila esker, era berean, Ainhoa Aizpuruari, artikulua honen bertsio desberdinak berrikusi eta egindako oharrengatik. Eta eskerrak ere mundua iraultzeko borrokan ibili zaretenoi eta egun zabiltzatenoi, zuek gabe, zuen konpromisoa eta ilusioa gabe, lan hau zentzugabea litzakeelako.